

KALE BARRIA. Areinegun sartu eben etorbideko lehenengo zuhaitza, eta Iñaki Azkunak lurra bota eutsan atzo

Trenbideko etorbidea gertu egongo da udagoienerako

Zabalgunea
Errekaldegaz eta
Basurtugaz lotuko
ditu kale barriak

Izaskun Basterretxea

Dana pentsatutako moduan joan ezker, udagoienera inauraturako dabe Trenbideko etorbidea. Bilboko kalerik nagusienetakoa izango da, Gran Viaren antzera. Errekalde eta Basurtu auzuneak Zabalguneagaz lotuko dituan kalea izango da, 880 metro ingurukoa, Gordonizko zubian hasi eta Luis Briñas kalerainokoa. «Kalea kale izaten hasi da, eta aurtengo urte amaierarako zabaldu gura-ko geunke», esan eban atzo Iñaki Azkuna Bilboko alkatea.

Igaz hasi ziran etorbide barria egiten, 1.500 milioi pezetako aurrekontuagaz, eta areinegun iluntzean sartu eben lehenengo zuhaitza, 10 metroko ezkia (*tilia tomentosa*), Autonomiako tren geltokiaren ondoan. Azkuna alkateak eta Angel Maria Nieva Bilbao Ria 2000ko zuzendariak, oster, atzo bota eutsien zuhaitzari lurra. Eta holan hasi ziran atzo

250 zuhaitz

Trenbideko etorbidean, 250 zuhaitz, 11.000 zuhaixka eta 10.000 lora landara sartuko ditue. Horren aurrekontua, 195 milioi pezetakoa da.

11 ZUHAITZ MOTA. Landatu behar dituen zuhaitzen artean azpimarratzekoa da 58 ezki (*tilia tomentosa*), 24 astigar (*acer rubrum*) eta 25 likidambar (*liquidambar styraciflua*) sartuko dituela. Horreetatik aparte, beste zortzi zuhaitz espezie landatuko ditue; beste batzuen artean, lizar arruntak (*fraxinus excelsior*), palmondo kanariarrak (*phoenix canariensis*), gaztainondoak (*juglans regia*), urkiak (*betula pendula*) eta pagoak (*fagus sylvatica*).

etorbide barria zuhaitz eta landarakaz janzen. 195 milioi pezeta inguru erabiliko ditue horretarako. «Apur bat garestia da, bai, baina merezi dau, Bilboko kalerik zabal eta politenetakoa izan gurako geunke-eta»,



XOUSA SIMAL

Iñaki Azkuna Bilboko alkatea Trenbideko etorbidean sartutako lehenengo zuhaitzari lurra botaten.

nabarmendu eban alkateak. «Garestitxo urtetan dau, auke-ratutako zuhaitzak nahiko handiak diralako eta lorategi zoragarrietatik ekarriko doguzalako». Aurrekontuko diru hori zuhaitzak erosteko, ekarteko, landetako eta mantenurako erabiliko dabe. 250 zuhaitz, 11.000 zuhaixka eta 10.000 lora landara sartuko ditue; eta Cespa enpresa arduratuko da hori beharriori egiteaz.

Bilboko etorbiderik ederrenetakoa izango dala nabarmendu eban behin baino gehiagotan Azkunak. Guztira, 24.600 metro koadroko kalea

DATUA

10 metroko zuhaitza

10 metroko ezkia (*tilia tomentosa*) sartu eben arenegun Trenbideko etorbidean, Autonomiako tren geltokiaren ondoan, Zankoeta kalearen parean. Etorbide barriko lehenengo zuhaitza da. Arenegun sartu eben, baina atzo bota eutsien lurra agintariak.

izango da, eta hainbat bedartza eta espaloi zabalak izango ditu. Kilometro bat baino gehiagoko bidegorria be egin behar ei

dabe, eta autoentzako aparkalekuak be bai albo banatan. «Hemen lehen ez egoan hola-kozik, inguru hila zan, eta orain hasi da kalea kale itxura hartzen, eta batez be zuhaitzak ipinten hasterakoan».

Kazetariak tranbiaren ganean pare bat itaun egin ostean, tranbia «albait arinen» amaituta ikusi gura leukela erantzun eban Azkunak. «Ez dot egun zehatzik esan gura. Atxuriko eta Abandoibarrako zatiak falta dira, eta desadostasunak konponduko diran itxaropena daukat. Izan be, tranbia garraio ekologikoa izateaz ganera, oinarritzakoa da».

Izaskun Basterretxea | BILBO

Beharrean fin, gelditu be egin barik dabilz egunotan Itaka alkarteko kideak. Martiaren 30etik apirilaren 1era merkatu txikia egingo dabe Bilboko Escolapios ikastetxean (Henao, 32), eta hori gertetan dabilz. Beste gauza batzuen artean, merkatuan saltzeko gauzak batzen dabilz: etxetresna elektrikoak, irriatiak, altzariak, etxeko apaingarriak, luzaroan gorde leiteken janaria, liburuak...

Merkatuan eskuratutako dirua Adsis-Bestalde alkarteari emongo deusie aurtan, preso egondako pertsonen kartzelatik kanpo dagoan gizartean sartzan laguntzeko. Joandako urteetan be, laguntasun beharrean dagozan hainbat pertsona eta alkarteri emon eutsien dirua: herrialde azpigaratueta-

Laguntzeko era bat

MERKATU TXIKIA. Martiaren 30etik apirilaren 1era merkatu txikia zabalduko dabe Bilboko Escolapioetan, Itaka alkarteak gertatuta

ko bizilagunei, etxe barik kalean bizi diranei, drogazaleakaz beharra egiten daben alkarte-ei... Azken baten, behar dabe-nei.

Merkatu txikiaren helburua bikotxa da

Orain dala hamazortzi urte hasi zan Itaka merkatu txikia egiten, urtero-urtero, eta helburua bikotxa dala azaldu deusio Aitor Miyarrek, alkarteko kideak, *Bizkaiari*: «Alde batetik sentzibilizazioa da, laguntasuna behar daben pertsonen laguntzeko kontzientzia guz-

tion artean zabaltzea; eta beste alde batetik, laguntasuna behar dauan alkarte, talde edo pertsonen diruz laguntzea». Orain arteko merkatuen balantzea «ona» dala esan dau Miyarrek, «dirua lortzetik aparte, jentearen partehartzea nahiko handia izan dalako». Batzuek merkatura gauzak erostera joanez hartzen dabe parte, eta beste hainbatek merkatuan gauzak saltzeko emonaz. «Kalean hainbat kartel eskegiten doguz jentear merkatuaren barri eukin dagian, telefono zenbakia be -94 424 49 54-

ipinten dogu argibide gehiago jakin gura izan ezker edo eurek emondako gauzak non batu jakiteko». Hortik aparte, Euskadiko Kutxan kontu korronte zenbaki bat be zabaldu dabe, gura dauanak bertan dirua sartzeko, eta holan, merkatuan lortutakoari gehitzeko.

Itaka 1985ean sortu eben, Escolapios ikastetxean

Escolapios ikastetxean sortu eben Itaka alkatea, 1985ean, eta eskolako eta inguruko hainbat gaztek osatzen dabe. Batez be hezkuntza arloko ekimenak

AITOR MIYAR

Itakako kidea

«Merkatuak helburu bi daukaz: sentzibilizazioa, alde batetik, eta behar daben hainbatentzat dirua lortzea, bestetik»

gertetan ditue Itakan, beste gauza batzuen artean, aisialdi taldeak. Eta ekimenetako bat merkatu txikia bera da.

Martiaren 30ean -barikua- 18:00etatik 21:00etara zabalduko dabe; martiaren 31n, 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era; eta apirilaren 1ean, 10:30etik 14:00etara. Aukera polita izan leike norberarentzako zeozer erosteko, eta bide batez, beste batzuei laguntzeko.